



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko irailaren 5ean

68 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Gizarte zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Hitzarmena, Lan eta Gizarte Aferetako Ministerioarekin sinatu beharrekoa, gazteentzako aterpetxeen presentzia eta sustapenerako partzuergoari atxikitzeko (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eta Erriberaren garapenerako EDER Partzuergoak lankidetzat hitzarmen bat sinatzea (8. or.).

—Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da inmigrazio politikari aurre egin diezaion zenbait ekintzaren bitartez (9. or.).

—Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Napal herriko ardi heriotzaren berri eman dezan (10. or.).

—Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ardi "scrapie" izeneko gaitzari buruzko informazio kanpaina bat egin dezan (11. or.).

—Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irabazi asmoak dituzten enpresek kudeatutako zentro publikoetako langileentzako hitzarmen bakarra sinatzea susta dezan (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin hitzar dezan Imarkoain eta Zuastiko bidesarien doakotasuna. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuak Batzordeak bazter utzia (14. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa publikoko mapa bat aurkez dezan, liburutegietako baliabideak antolatzeko. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, oposizio-lehiaketaren bidez betetzekoa. Izendapena (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Gizarte zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeteari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Gizarte zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Gizarte zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Gizarte zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Kontuen Ganbarak, minusbaliatuendako 1995eko programari buruz eginiko txostenean luze eta zabal aztertu zuen Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuen itunen inguruan dagoen oinarritzko araudia, eta txosten horretan honako alderdi hauen berri eman zuen:

– Gizarte zerbitzuak martxoaren 30eko 14/83 Foru Legeak arautzen ditu, printzipio hauetatik abiatuta: erantzukizun publikoa, zerbitzuen berdintasuna eta unibertsaltasuna, inor batzertu gabe, eta gizartearen parte hartzea taldeena zein banakakoena zerbitzu horien planifikazioan eta kontrolean.

– Aurreko legea, zerbitzu entitate eta erakunde elkartuekin eta laguntzaileekin itunak egiteko eginkizuna administrazio publikoen esku uzten zuena, osatzeko asmotan onetsi zen urriaren 25eko 20/85 Foru Legea, “Gizarte zerbitzuen arloko itunei buruzkoa”. Lege horrek baimena eman zien administrazio publikoei itunak izenpetzeko zentro edo zerbitzuen titularrak diren irabazi asmorik gabeko entitate publiko eta pribatuekin, betiere kreditatze sistema baten baldintzapean.

– Nolanahi ere, Nafarroako 1988ko Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/88 Foru Legeak aldaketa sakona ekarri zuen, gizarte zerbitzuak ematea enpresa jardueratzat, irabazi asmoetara bideratutakotzat, beraz, hartzeko aukera aurreikusi baitzuen.

– Bestalde, gizarte zerbitzuen arloko baimeen, arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/90 Foru Legeak kreditatzearen kontzeptuaren ordez baimenarena ezarri zuen, eta horrekin batera kalitatearen gutxieneko parametro batzuk finkatu zituen berriaz, zentro eta zerbitzu guzti-guztiei, itunen xede izan ala ez, eskatu beharrekoak.

– Aurrerago, itunei buruzko 20/85 Foru Legea garatu zuen martxoaren 23ko 120/92 Foru Dekretuak bere egin zuen 1988ko Aurrekontuei buruzko Legeak eginiko aldaketa, hitz batez, gizarte zerbitzuak ematea enpresa jardueratzat har daitekeela onartu zuen. Horren ondorioz, zerbitzu publikoen kudeaketa kontratatzea erregulatzen duen araudia osagarria zela deklaratu zuen; finean, horretara bideratu zuen ituntzeko legeko nahia.

Hortaz, Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege bat (14/83) dugu, zerbitzu hauek zuzendu behar dituzten printzipioak zehazten dituena eta 1988ko aurrekontuei buruzko Legeak funtsean aldatu zuena. Horrek ekarri zuen zentroak ituntzea irabazi asmoa duten entitateekin, eta horren ondorioak ezin txarragoak izan dira administrazio publikoarentzat eta laguntza jasotzen duten pertsonentzat. Kalitatea, kudeaketaren eraginkortasuna eta baliabideen errazionalizazioa lortu beharraren argudioak huts egin du.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da 1983ko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen hastapeneko asmoak berreskuratzea, eta horiek islatzea Gizarte Zerbitzuen arloko Itunei buruzko 1985eko

Legearen artikuluetan eta hura garatzen duen arauetan; beraz, proposatzen da:

Artikulu bakarra. Gizarte Zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legearen 3. artikulua 1.c) idatz-zatia aldatzea, honakoa esateko:

“1.c) zentro edo zerbitzu berekien edo administrazio publikoek irabazi asmorik gabeko entitate publiko edo/eta pribatuekin sustatutakoen kudeaketa.”

Azken xedapena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egun berean hartuko du indarra.

D saila:
HITZARMENAK

Hitzarmena, Lan eta Gizarte Aferetako Ministerioarekin sinatu beharrekoa, gazteentzako aterpetxeen presentzia eta sustapenerako partzuergoari atxikitzeko

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua eza-
rritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko
hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko
Aldizkari Ofizialean argitara daitezten agintzen da:
"Hitzarmena, Lan eta Gizarte Aferetako Ministerio-
arekin sinatu beharrekoa, gazteentzako aterpetxe-
en presentzia eta sustapenerako partzuergoari
atxikitzeko".

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Hitzarmena, Lan eta Gizarte Afereta-
ko Ministerioarekin sinatu beharre-
koa, gazteentzako aterpetxeen pre-
sentzia eta sustapenerako
partzuergoari atxikitzeko**

Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko administra-
zioaren eta

autonomia erkidegoen artekoa, gazteentzako
aterpetxeen presentzia eta sustapenerako.

Madrilen, 2000koaren(e)an.

B I L D U R I K

Lan eta Gizarte Aferetako ministro
jauna, Estatuaren Administrazio Orokoraren ize-
nean eta hura ordezkatuz, Administrazio Publiko-
en Araubide Juridikoari eta Guztiendako Adminis-
trazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko
30/1992 Legearen hamahirugarren xedapen gehi-
garriak emandako ahalmenekin bat, urtarrilaren
13ko 4/1999 Legearen bigarren artikulua eman-
dako erredakzioaren arabera;

Andaluziako Juntako kontseilari
jauna, hura ordezkatuz, baliatuz.

Aragoiko Diputazio Nagusiaren kontsei-
lari jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Asturiasko Printzerriko kontseilari
jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Gaztela-Mantxa Erkidegoen Juntako kon-
tseilari jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Gaztela eta Leongo Juntako kontseilari
jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Extremadurako Juntako kontseilari
jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Galizako Xuntako kontseilari
jauna, hura ordezkatuz, baliatuz.

Madrileko Autonomia Erkidegoko kon-
tseilari jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Nafarroako Gobernuak kontseilari
jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Eusko Jaurlaritzako sailburu
jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Valentziako Generalitateko kontseilari
jauna, hura ordezkatuz,
baliatuz.

Guztiek betekizunak bere gain hartu eta hitzar-
mena egiteko ahalmena dutela onartu eta

ADIERAZTEN DUTE:

Autonomi erkidegoek, bakoitzaren autonomia estatutueta ezarritakoarekin bat, erabateko eskumena dutela gazteriaren arloan, eta kasu bakoitzean eman eta argitaratu direla eginkizunak eta zerbitzuak, gazteentzako aterpetxeak barne, eskualdatzeko errege dekretuak.

Aterpetxeak gazteen mugigarritasuna, eta elkarren arteko komunikazio kulturala, lankidetzeta eta ezagutza sustatzeko politikaren funtsezko tresna dira.

Autonomia erkidegoen eskumenen kaltetan joan gabe, eta haiekin bat, Lan eta Gizarte Afere-tako Ministerioaren Gazteriaren Institutuak eskumena duela, Konstituzioaren 149.2 artikuluarri jarraikiz, gazteen arteko kulturaren alde egiteko eta haien komunikazio kulturala, autonomia erkidegoen artekoa, errazteko, honekin bat.

Hitzarmen honetako alderdi guztiek asmo osoa dutela gazteen mugigarritasuna, eta elkarren arteko lankidetzeta eta ezagutza gauzatzeko, horien garrantzi kulturala dela-eta, aterpetxeen nazioarteko esparruan, bai eta komunikazio kulturala Estatuaren esparruan, autonomia erkidegoen eskumen erabatekoak ukitu gabe, edozein kasutan.

Estatuz gaindiko esparruan Gazteentzako Aterpetxeen Nazioarteko Federazioa (GANF) dago eraturik, kide diren herrialde guztietako gazteen zerbitzuko oinarrizko tresna gisa, gazteen mugigarritasuna eta kultura eta elkarren arteko lankidetzeta eta ezagutza sustatzeko. Aipatutakoa hitzarmen honen alderdi guztientzat garrantzizko lorpena da, eta beraz, sinatzaile guztiengan Federazio horretan aterpetxeen mugimendu espainiarren presentzia egiazkoa izan dadin bitartekoak jartzeko nahia eragin du.

Orain arte aurreikusitako kasuetatik, Hitzarmen honetako alderdiek erabaki dute, Konstituzioaren 149. artikulua 2. idatz-zatiarekin, autonomia erkidegoetako autonomia estatutuekin eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztientzako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6 eta 7. artikuluekin bat, nortasun juridikoa duen erakunde komun bat eratzea, aurreko azalpenetan ageri diren helburuetarako, honako hauei jarraikiz:

K L A U S U L A K:

Lehendabizikoa.- 1. Hitzarmen honen helburua da hauxe sustatzea:

a) Estatuko autonomia erkidegoetako aterpetxeen presentzia Gazteentzako Aterpetxeen Nazioarteko Federazioan (GANF) eta Gazteentzako Aterpetxeen Europako Federazioan (EUFED),

bai eta, Hitzarmen hau kudeatzeko sortzen den Partzuergoaren Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu, nazioarteko beste edozein erakundetan, lojamenduko azpiegitura egokiarekin gazteen mugigarritasun, lankidetzeta eta elkarren ezagutzaren interesen alde egiten badu; betiere, partzuergoko kide diren administrazioek, indarra duten legeekin bat, nazioarteko beste edozein erakundetan sartzeko duten eskubidea ezertan ukatu gabe.

b) Gazteen mugigarritasuna Estatuko lurraldearen esparruan, gazteentzako aterpetxeen bitartez, aterpetxe horiek hitzarmen honen parte den autonomia erkidego bakoitzaren sarekoak izan edo hari atxikiak izan.

2. Hitzarmena kudeatzeko Partzuergo bat sortu da, Gazteentzako Aterpetxeak-Gazteentzako Aterpetxeen Espainiako Sarea finkatu eta sustatzeko Partuergoa izenarekin.

Haren helburuak dira aurreko lerrokadan ezarritakoak, eta araubide organiko, funtzional eta finantzarioa, berriz, estatutueta aurreikusirikoa.

Bigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia 12 urtekoa izanen da, eta luzatu ahal izanen da lau urteko epetarako, kideen erdiak gehi batek alde aurretik bertan behera uzten duen kasuan salbu.

Hirugarrena.- Partzuergoko kideak dira Hitzarmen hau izenpetzen duten eta hari behar den moduan eta estatutueta adierazten den tramitea betez atxikitzen zaizkion autonomia erkidegoak.

Laugarrena.- Hitzarmen honek, klausula hauen gain, Partzuergoaren estatutuak ere biltzen ditu, ezin baitira hitzarmenetik bereizi.

Bosgarrena.- Izenpetzen duten administrazioek parte hartzen dute Partzuergoaren finantzazioan eta kudeaketan estatutueta aurreikusitako moduan. Kide bakoitzak, haren lege autonomiaren esparruan, Partzuergoari urtero eman beharreko kredituak bere aurrekontuetan, horietan erabilgai duen diruaren arabera, sartzeko behar diren kudeaketak eginen ditu. Partzuergoarendako ekarpena estatutueta organo eskudunak balioaz onetsitako aurrekontuaren arabera izanen da.

Seigarrena.- Izenpetzen duten administrazioek Partzuergoaren funtzionamendurako behar diren jarduketak egin eta xedapenak emateko betebeharra hartzen dute bere gain.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honen aldaketak eta haren parte diren estatutuenak alderdien arteko hitzarmenen bidez eginen dira, alderdietako

edozeinek eskatuta edo Partzuergoaren Batzar orokorrak proposaturik.

Zortzigarrena.- Hitzarmen honek alderdiek onesten duten egunean berean hartuko du indarra eta hilabeteko epean eratuko da Batzar Orokor Eratzailea, esku hartzen duten administrazioek horretarako izendatzen dituzten ordezkariak osatuta. Batzarreko buru ordezkari zaharrena izanen da, eta idazkari, berriz, gazteena.

Buruari dagokio Batzar Orokor Eratzailerako deialdia egitea, 15 egun aurretik, gutxienez. Batzar Orokor Eratzaile horretan kide bakoitzak boto bat baizik ez du izanen.

Batzorde Exekutiboa estatutuetan ezarritako prozeduraren bidez eratuko da aurreko lerrokadan aipatzen den Batzar orokorrak, estatutuei jarraikiz, hala erabakitzen duen unean.

Partzuergoko pertsona bakarreko organoek organo kolegiatu eskudunak aukeratu eta hauek karguak onartzen dituzten unean hasiko dira beraien eginkizunak betetzen.

Bederatzigarrena.- 1. Aurreko klausularen lehendabiziko lerrokadan aipatzen den Batzar Orokorrean erabakiko da, halaber, Partzuergoko administrazio publikoek hitzarmen hau sinatzen den urte naturala amaitzeko gelditzen den denborarako jarduera plana eta botoen kopurua zehaztuko da kreditatzen diren lojamenduen arabera.

2. Jarduera plan horren proiektua prestatzeko, hitzarmen hau izenpetu ondoko bost egunen barruan batzorde ad hoc bat eratuko da, hauexek osatua:

Estatuko Administrazioak izendatzen duena.

Autonomia erkidego hauetako ordezkari bana: Andaluzia, Asturias, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Euskadi, Madril eta Valentzia.

Hamargarrena.- Hitzarmena izenpetzen den urtea amaitu arte, bederatzigarren klausulako lehendabiziko lerrokadan adierazi bezala, Lan eta Gizarte Aferetako Ministerioaren Gazteriaren Institutuak aurrekontuan mantenduko ditu gazteentzako aterpetheen arloan nazioartean betetzen duen

lanerako egun dituen kontzeptuak, eta beraz, gastuei erantzun eginen die.

Hamaikagarrena.- Partzuergoaren egoitza edo helbidea prestatu egon arte, behin-behineko helbidea Andaluziako Juntaren Lehendakari-tzako kontseilaritzaren menpeko Andaluziako Gazteriaren Institutuarena izanen da, Muñoz Olivé kaleko 1, 3.a, 41001 P.K.

Hamabigarrena.- Partzuergoaren esku utzitako eginkizunak betetzean ez da inolaz ere hartuko autonomia erkidegoek beren titulartasuneko aterpetheen inguruan ezarri dituzten edo ezarri ahal dituzten identifikazio ikurrak aldatu ditzakeen neurririk, ez eta aterpetxe horiek kudeatzeko ahalme-nean eraginik izan dezakeenik ere.

Hamahirugarrena.- Hitzarmen hau eta erantsirik dauzkan estatutuak parte hartzen duten administrazioek argitaratuko dituzte, tokian tokiko "aldizkari ofizialetan".

Eta adostasunaren froga gisa, hitzarmen hau hasieran adierazitako tokian eta datan izenpetu da.

Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatzuz

Andaluziako Junta ordezkatzuz

Aragoiko Diputazio Nagusia ordezkatzuz

Asturiasko Printzerria ordezkatzuz,

Gaztela-Mantxa Erkidegoen Junta ordezkatzuz

Gaztela eta Leongo Junta ordezkatzuz

Extremadurako Junta ordezkatzuz

Galiziako Xunta ordezkatzuz

Madriko Autonomia Erkidegoa ordezkatzuz

Nafarroako Gobernua ordezkatzuz

Eusko Jaurjaritza ordezkatzuz

Valentziako Generalitatea ordezkatzuz

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eta Erriberaren garapenerako EDER Partzuergoak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dezaten

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eta EDER Partzuergoak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dezaten premiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko bozeramaile Juan José Lizarbe Baztánek, Biltzarreko Erregelamenduko 192 eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren babesean, mozio bat aurkeztu du Osoko Bilkuran onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen

da, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Erriberaren Garapenerako Partzuergoarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dezan, elkarre horrek Leader eta Interreg ekimen komunitarioen esparruan finantzatu ahal izan ditzan prestakuntza jarduketak.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez, Erriberako Eder Partzuergoak –sozialistok Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoari eta TEDER elkarteari buruz aurkeztu ditugun mozioetan aintzat hartu diren arrazoi berberengatik– aukera izan behar du Nafarroako Gobernuarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzeko, Leader eta Interreg ekimen komunitarioen esparruan finantzatu ahal izan ditzan prestakuntza jarduketak.

Horrela, bada, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Erriberaren Garapenerako Partzuergoarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dezan, elkarre horrek Leader eta Interreg ekimen komunitarioen esparruan finantzatu ahal izan ditzan prestakuntza jarduketak.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean.

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da inmigrazio politikari aurre egin diezaion zenbait ekintzaren bitartez

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak inmigrazio politikari aurre egin diezaion zenbait ekintzaren bitartez premiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, mozioak arautzen dituen Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluari eta ondorengoei jarraituz, mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da inmigrazio politikari aurre egin diezaion, arazo hori antzematen den eremu guztietarako neurri eta jarduketak bilduko dituzten ekintzak burutuz.

Gorte Nagusiek 1999ko abenduaren 23an onetsi zuten Espainiako atzeritarren eskubide eta libertateei buruzko, urtarrilaren 11ko, 4/2000 Lege Organikoa. Lege horrek 2000ko otsailaren 1ean hartu zuen indarra. Aurreko legegintzaldiko Espainiako Gobernuak eta oraingoak ez dute Lege honekiko aurkakotasuna ezkutatu onetsi zen egunetik eta behin baino gehiagotan agertu dira legea berehala erreformatzearen alde.

Aldaketa horietarako giro egokia sortzeko, bai Gobernuak bai PP alderdiak inmigrazioaren inguruko gertaera guztiak, sistematikoki, helburu bera-rekin erabiltzen dituzte: erreformaren beharra frogatzen saiatzeko. Legez kanpoko inmigranteen aurkako ekintzekin zerikusia duten berriak, erregulazio-zifren inguruko informazioak edo bestelakoak; horiek guztien aurrean Gobernuak, bere mezuetan, Legeari botatzen dio errua "erakartze efektua" delakoagatik.

Halaber, Barne Ministerioan inmigrazioaren gaineko funtzio administratibo eta politikoak bate-ratzeak eta Ministerio horretako titularrak Estatuko Idazkari berria sartzean sortu zuen alarmismoak handiagotzen doan kezka sentsazio bat sortu dute, arlo publikokoa eta elkarbizitzakoa den arazo kolektibo hori dela-eta. Erantzuna gaia "politizatzea" izan da, gai publikoa bailitzan. Ordea, ez da adierazpenik egiten, mezurik ematen edo neurririk hartzen gure estaturako eta Europako Batasunerako alderdi sozioekonomiko nabarmenak dituen gai horri buruz.

Jarrera horri aurre egiteko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak gogorarazi nahi du zaila izango dela inmigrarioari buruzko politika orokorrik aurrera eramatea, etorkinen jatorrizko herrialdeetako egitura-beharrak kontuan hartu gabe, eta, bestalde, garapenaren alde lankidetzan aritzeak ez dakarrela arazo guztien konponbidea, baina, hala ere, gai hau zorroz-tasun eta zuhurtzia handiagoz bideratzen lagun-tzen du.

Aldi berean, inmigrazioaren fenomenoak, potentzialki, gizarte osoan dituen ondorio txarrak areagotu nahi ez baditugu, egoeraren zenbait ele-mentu objektibo gogorarazi beharra dago:

Lehenik: Egungo legeak duela gutxi hartu du indarra, eta ohiz kanpoko arauketarako prozesua uztailaren bukaeran amaitzen da. Legea aplikatzearen ondorioz egungo egoerak okerrera egin duela "ondorioztatu" aurretik, eta haren erreforma-ri ekin aurretik, beharrezkoa da arauketa epea agortzea eta legearen testu berriarekin sortu diren arazoan, abantailen eta eragozpenen ebaluazio lasaigo bat egitea. Ildo horretatik, legelari-ek, Inmigrazioaren Foroko GKEek eta Ginebran bildu-tako Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzorde-ak Gobernuari gomendatu diote ez diezaiola lege-aren erreformari ekin, legea zuhurtasun eta lasaitasunez berriz ebaluatu ahal izan arte.

Bigarren: Gure herrian sartzen ari diren lege-zko etorkinen kopurua ez da aurreko urteetakoa baino handiagoa. Bestalde, ez dirudi Gobernuak etorkinen etorrerak gure lurraldeko eremu tradizio-naletan duen eragina gutxitzeko beharrezko litza-tekeen jarduerarik egiten ari denik. Legearen erre-forma eskatzea, arazoak konpontzeko beharrezko ekintzarik proposatu gabe, arazoa interesen ara-bera manipulatzeko dela uste dugu.

Hirugarren: Gure etorkinen kopuruak, Europako inguruko herrialdeekin konparatuz, oso baxua izaten jarraitzen du, eta ezaguna da enpresen etorkin gehiago eskatzen dituztela ekonomia arlo jakin batzuetarako.

Laugarren: Arlo horretako GKEek esana zuten legez kanpoko etorkinen kopurua 120.000 eta 150.000 bitartekoa izan zitekeela eta horiek erregularizazio prozesu honetan ezagutu ahalko zirela. Beraz, esan daiteke etorkinen kopuruak ez dituela aurreikuspenak gainditu, Gobernuarenak alde batera uzten baditugu.

Horrenbestez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko Erabaki Proposamena aurkeztu du Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Nafarroako Parlamentuak Erabaki du Espainiako Gobernuaren premiatzea inmigrazio politikari aurre egin diezaion, arazo hori antzematen den eremu guztietarako neurri eta jarduketak bilduko dituzten ekintzak burutuz.

Ondorioz, erabaki da Espainiako Gobernuaren premiatzea:

1. Urtea amaitzean, Gorte Nagusietara txosten bat igor dezan. Txosten horretan, lege berriak indarra hartzeak izan dituen eraginak aztertu eta ebaluatuko dira eta, beharrezkoa bada, esperientziak eta lortutako emaitzek gomendatzen dituzten erreformarako neurriak proposatuko.

2. Mugen kontrola indartu dezan, bereziki itsasartean eta Kanariar Uharteetan, eta baita legez kanpoko inmigrazioko mafien aurkako zainketa eta jarduna ere.

3. Legez kanpoko etorkinentzako Larrialdi Zentroak sortzeko politika bat gara dezan, pertsona horien giza eskubideak errespetatu daitezten

beraien aberriratzea izapidetzen den bitartean, eta, beharrezkoa bada, letradunen laguntza eskatu ahal izan dezaten, asilo edo babesa eskatzen badute.

4. Inmigrazioa jatorrian bertan arau dezan, gure inguruko hegoaldeko herrialdeekin hitzarmenak eginez eta erabakiak hartuz. Arauketa hori egiten da autonomia erkidego eta ekonomia sektore bakoitzeko behar diren etorkinen kopurua planifikatuz, enpresa arloko erakundeekin lankidetzan.

5. Autonomia erkidegoekin eta toki korporazioekin koordinazio plan bat presta dezan. Plan horren helburu izanen dira: etorkinen gizarteratzea, etxebizitza, hezkuntza eta osasuna finantzatzea; urtero behar diren etorkinen kopurua eta horiek eskatzen dituzten ekonomia sektoreak planifikatzea; lan-kontratuen baldintzak edo, hobeki esanda, horien gabezia ikuskatzea, horixe baita gertatzen ari den arazo larrienetakoa, legez kanpoko etorkin langileen gaineko gehiegikeriak saihesteko; familiak elkartzea, etorkinak gizartzeratzeko.

6. Epe ertaineko garapen politika bat abia dezan, hegoaldeko herrialdeekin eta etorkin gehien eragiten dituzten herrialdeekin.

7. Lagundu gabeko eta dokumenturik gabeko adingabeei buruzko berariazko politika baten plangintza egin dezan. Adibidez, adingabekoen-tzako Larrialdiko Harrera Zentro berariazkoak sortzea, Hautzaroa babesteko Hagako Hitzarmena, Nazio Batuen Goi Komisaiatuaren errefuxiatuentzako jarduketa irizpideak eta lagundu gabeko adingabeei buruzko Europako Batasunaren Erabakia begiratzuz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Nepal herriko ardiaren heriotzaren berri eman dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Nepal herriko ardiaren heriotzaren berri eman dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenke-

tak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Talde Mistoko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa izapida dadin eskatzen du. Gaiaren larritasuna dela-eta, mozioa ahalik eta arinen tratatzeko eskaera egiten du.

Zioen azalpena:

Zenbait informaziok pentsarazten digute abeltzaintza eta osasun publikoaren inguruko arazo larri baten aurrean egon gaitzkeela Nafarroan eta biztanleak ez direla baliatzen informatuak egoteko duten eskubideaz.

Napalen bi mila ardi inguru hil eta lurperatzea, bai eta horien simaurra edateko ura duten akuiferoetatik gertu botatzea nahikoa arrazoi dira Parlamentu honek zenbait neurri har ditzan.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamenak aurkezten ditut Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka daitezen:

1- Nafarroako Gobernuari eskatzea beharrezko dokumentazioa eman dezan ondokoei buruzko informazio zehatza izateko: gertatutako egitateak, ardien gaixotasuna, horren kausak, ardiak lurperatzeko arrazoiak, bai eta toki hori hautatzekoak, eta horren guztiaren ondorioz emandako pauso guztiak.

2- Jasotako datuekin, zehatz-mehatz, gardentasunez eta zintzotasunez argibideak ematea Nafarroako biztanleei, ekainaren 20an, Napalen, ardien hilketa eragin zuen gaixotasun zehatzari buruz.

3- Halaber, publikoki argibideak ematea gaixotasun hori eragin zuten kausei buruz.

4- Argibideak ematea egoerari aurre egiteko hartutako neurriei buruz, batez ere osasun publikoan izan ditzakeen eraginei dagokienean.

5- Ardiak lurperatzeko tokia hautatzeko arrazoi buruzko argibideak ematea.

6- Momentu honetan kezkatzeko arrazoirik ba ote dagoen azaltzea, datu zehatzetan oinarrituz.

7- Kezkatzeko arrazoirik baldin badago, jardueren arduradunei behar diren erantzukizunak eskatzea.

Tuteran, 2000ko uztailaren 21ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ardien “scrapie” izeneko gaitzari buruzko informazio kanpaina bat egin dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernu ardien “scrapie” izeneko gaitzari buruzko informazio kanpaina bat egin dezan premiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarraren Erregelamendua babesean, honako mozio hau aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaida dadin:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak onartu eta deklaratu du berriki “scrapie” edo ipur-masailetakoa prurigoa delako gaitza agertu dela, eta horrek polemika eragin du komunikabideetan eta Parlamentuko taldeetan; bestalde, gizartean larritasuna sortu du, azken egunotan izan diren obskurantismoaren, argibide faltaren eta Departamentuak luzatutako informazio interesatuen ondorioz.

Egoera honen eraginez, gaur egun ez dakigu argi eta garbi noiz sortu den gaitza, zer ondorio

ekar ditzakeen herritarrendako eta kontsumorako, ez eta aziendarentzat ere, eta ez dugu Nekazaritza Departamentuak sektoreak hondoa jo ez dezan hartuko dituen neurrien berri, ez eta sektoreak jasanen dituen kalteen berri ere.

Une hauetan ez dakigu zein diren gaitza eraginen zuten arrazoiak eta inork ez digu esan Napariko abeletxe horretatik - "scrapie" gaitza sortu bide den tokitik- azken urte hauetan atera diren abere guztien zainketa planen bat gauzatuko den ala ez.

CDN taldearen ustea da Nekazaritza kontseilariaren estrategia traketsak, informazio faltan oinarrituak, egiazko arrazoirik gabeko larritasuna sor dezakeela gizartean, eta horrek kalteak ekarri sektoreari, kontsumoaren jaitsiera dela-eta. Ezinbesteko eta beharrezkotzat jotzen dugu herritarrei argibideak eta informazioa emateko kanpaina bat egitea, eta haren bitartez azaldu gaisotasun honek gizon-emakumeen osasunean inolako eraginik ez duela.

Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamentuak herritarrek lasaitu nahi izan zituen ohar labur baten bitartez, gaitza deklaratu izana gizartean eta sektore ekoizlean inolako larritasunik sortzeko arrazoa ez dela esanez. Departamentuaren asmo hori baliagarria izan zitekeen, hasiera-hasieratik ezer izkutatu gabe eta gardentasunez jokatu izan balute, baina ez zuten hala egin.

Gardentasun hori eta zuhurtzia bateragarriak izan beharko lirateke, baina ez da bidezkoa egun batean esatea "scrapie" gaitzik ez dagoela eta handik egun batzuetara modu ofizialean baieztatzea gaitza deklaratu dela eta estatuko agintariei jakinarazi zaiela.

Egungo egoerak eragin nabarmena izan dezake Nafarroako familia askoren bizibidea den sektorean. Horren aurrean, CDN taldean uste dugu ezinbestekoa dela informazioa zabaltzeko kanpaina instituzional bati ekitea Foru Komunitateko komunikabideetan, azaltzeko, batetik, adituek esan duten bezala, eritasun hau ez dela kaltegarria giza osasunerako eta, bestetik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamendua gaitza kontrolatzen ari dela eta nola, zer egin eta eginen

duen gaitzari aurre egiteko eta Nafarroako Gobernuak aurreikusi duen jarraipena.

Horretatik aparte, gaitza badela egiaztatu eta deklaratzeko kutsaturik egon daitezkeen abelburu guztiak hiltzea eskatzen du. Zaila da jakitea artalde bakoitzean zein diren gaitzak harturik egon daitezkeen abelburuak, eta beraz susmopean dauden artaldeetako abelburu guztiak hil behar dira. Horren aurrean, sektorearen sindikatuak eta ukitutako abeltzainek kritikak plazaratu dituzte, haien iritziz Nafarroako Gobernuak kalteordain gisa emandako prezioa ez delako behar adina-koa. Abeltzainek protesta egin dute esanez kalteordainek ardi bakoitzaren kostuaren % 50 baizik ez dutela hartzen. Ordaintzen diren zenbatekoak merkatuan azia buruak duen prezioetik behera daude eta kalitateko artaldea lortzeko behar den lana ez da sartzen.

Abeltzaintza bertan behera uztea ekar dezakeela kontuan harturik, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak handitzea kalteordainen zenbatekoak, etorkizun hobea ahalbidetzeko, jarduerari berriz ekiteko edo beste batean hasteko.

Aurreko guztia dela-eta, hona hemen erabaki proposamena:

1.-Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hasiera eman diezaion, lehenbailehen, kontsumitzaileendako informazio kanpaina instituzional bati, Foru Komunitateko komunikabideetan, herritarrek ezagutu ditzaten "scrapie" edo ipur masailletako prurigoa izeneko gaitzaren ezaugarriak, eta jakin dezaten ez dela kaltegarria giza osasunerako, nola transmititzen zaien pertsoneri, etab. Kanpaina honen helburua izanen da gizartean larritasunik ez sortzea eta sektoreak gain behera ez egitea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du kalteordainak egoki ditzan, "scrapie" gaitzaren kontrako aurreneurri gisa ardiak hiltzera beharturik dauden abeltzainei egun ematen zaizkien ez baitira bat heldu azia horrek merkatuan duen prezio errealekin.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 7an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da irabazi asmoak dituzten enpresek kudeatutako zentro publikoetako langileentzako hitzarmen bakarra sinatzea susta dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak irabazi asmoak dituzten enpresek kudeatutako zentro publikoetako langileentzako hitzarmen bakarra sinatzea susta dezan premiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192 eta 193. artikuluen babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran izapida dadin.

Kontuen Ganbarak 1997ko maiatzean Nafarroako Parlamentuari igorritako Minusbaliatuaren 1995eko Programari buruzko txostenak, ondorioetan gomendatzen du "egungo itun-sistemaren aldaketa sakona, honakoak bermatuko dituzten baldintza-sorta normalizatuak garatzea ahalbidetuko duena: laguntza-kalitate egokia, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bere gain har dezakeen kostu eta onuradunaren erosteko ahalmenaren arabera tarifa egokiak. Halaber, beharrezkoa da Administrazioak itunen bideragarritasun ekonomikoa eta laguntza-kalitatea ziurtatuko dituzten kontrolak gauzatzea."

Egia da azken urte hauetan itunak ikuskatzeko kontrolatan aurrerapausoak egin direla, bai eta adjudikazioak modu homogeenagoan egin direla eta itunaren kostua banatua dagoela. Azken neurri horrek ahalbidetzen du jakitea zein kontusaili eta zenbatekori atxikita dauden langileen kostuek, hornigaiak, industria mozkinak eta abar.

Hala ere, beharrezkoa da aitortzea badela landu ez den eremu handi bat. Moduluek oso ezberdinak izaten jarraitzen dute eta zentro bakoitzaren historiari loturik daude. Ez dira argi zehaztu

zentro bakoitzeko laguntza mota ez eta ratioak ere, eta azken hauek beharrezkoak dira zentro bakoitzaren beharrei kalitatez erantzuteko. Arago, itunaren prezioa KPIren arabera eguneratzen da eta horrek arazoak sortzen ditu enpresa kontzesio hartzaileen eta langileen artean lan-baldintzak eta ordainsariei buruzkoak negoziatzeko orduan.

Hausnarketa horietatik huts egiteko inolako beldurrik gabe ondoriozta daiteke egungo itunen sistema ez dela sakonki berrikusi Kontuen Ganbarak gomendatu bezala, baizik eta gehienez ere antolaketan aldaketak egin direla.

Egoera honen ondorioz Nafarroako Gobernuarekin itundutako zentroetako eta foru titulartasuna duten zentroak kudeatzen dituzten zentroetako langileen lan-baldintzak ezberdinak dira.

Sektore horretako sindikatutek arazo honekin lotutako txosten eta lanak egin dituzte. Hona hemen aipatzen dituzten ezberdintasunak:

1.- Zentroetako lan-baldintzak oso ezberdinak dira.

2.- Ezberdintasun handia dago zentro publikoetako lan-baldintzetan, irabazi asmoak dituzten enpresek kudeatutakoak izan edo administrazioak berak kudeatutakoak izan. Ordainsariei dagokienez, % 17ko ezberdintasunak daude, eta lanorduei dagokienez, batez beste, gutxi gorabehera, 180 ordu gutxiago lan egiten da zentro batzuetan besteekiko.

3.- Azkenik, ondoko paradoxa gertatzen da: zenbait zentro publiko kudeatzen dituzten enpreetan 12 langile mota dituzte, gehienez, haien lanordu eta ordainsarien arabera.

Hartara, ondoriozta daiteke itun mota gehiegi dagoela eta berrikuspen eta eguneratze sistemak ez direla benetako beharretara egokitzen. Halaber, baieztatu daiteke moduluak kasu bakoitzean ezberdinak direla eta ez dutela kalitatezko laguntza bermatzen.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat langileen ordainsariena da. Ez da koherentea, ez eta zuzena ere, administrazioak antzinatean lehentasun handia ematen zaion ordainsarien sistema duen bitartean, bestalde itunak KPIren arabera eguneratzeko sistema bat ezartzea.

Beste alde batetik, ezgaitasuna duten pertso-
nei laguntzeko zentroetako gastuak nabarmen
gehitu dira. Halere, kostu ezberdintasuna dago
persona bat administrazioak kudeatutako zentro
publiko batean lagundu edo irabazi asmoak dituen
enpresa batek kudeatutakoan lagundu.

Itun eta hitzarmen bakar bat egiteko jarraitu
beharreko adibidea Hezkuntza Departamenduak
Foru Komunitateko zentro itunduekin eginikoa da,
bai eskuordetutako ordainketa ezartzeari dagokio-
nez, bai eta itundutako zentroetako langileen lan-
baldintzak pixkanaka homologatzeari dagokionez.

Egoera horren aurrean ondoko erabaki propo-
samena aurkezten dugu:

1- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du negoziazioan eragile
gisa aritu dadin eta irabazi asmoak dituzten
enpresek kudeatutako zentro publikoetarako
hitzarmen bakarra sinatzea susta dezan, zentro
eta enpresa ezberdinetako langileen artean gerta-

tzen diren diskriminazioak saihestearren. Hitzar-
men berri horrek lan baldintza eta ordainsarien
baldintza homogeenak bildu beharko ditu; fun-
tzioak argituko ditu eta langileen ratioak ezarriko
ditu, zentroan dagoen persona bakoitzak behar
duen laguntza motaren eta duen minusbaliotasun
graduaren arabera.

Halaber, helburu izanen du 35 orduko lanaldia
ezartzea ekimen pribatuak kudeatzen dituen titu-
lartasun publikoko zentro guztietan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du itunetan KPlari loturik ez
dauden birbalorizazioak bilduko dituzten klausulak
ezar ditzan, langileek lan arloan eta ordainsariei
dagokienez egiten dituzten eskariei erantzun ahal-
ko dieten bestelako eguneratze-indizeak erabiliz.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 9an

Eledun: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasare- kin hitzar dezan Imarkoain eta Zuastiko bidesarien doakotasuna

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTUAK BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak
ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren
bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aude-
nasarekin hitzar dezan Imarkoain eta Zuastiko
bidesarien doakotasuna".

Nafarroako Parlamentuko Ekonomi, Ogasun
eta Aurrekontuetako Batzordeak, 2000ko ekaina-

ren 16an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa
baztertu zuen. Mozio hori 1999ko abenduaren
31ko 33 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa publikoko mapa bat aurkez dezan, liburutegietako baliabideak antolatzeko

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2000ko ekainaren 27an eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa publikoko mapa bat aurkez dezan, liburutegietako baliabideak antolatzeko".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa publikoko mapa bat aurkez dezan, liburutegietako baliabideak antolatzeko

"1.- Nafarroako Gobernua premiatzen da zortzi hilabeteko epean irakurketa publikoko mapa bat aurkez dezan, liburutegiko baliabideak antolatzeko ezinbesteko tresna den aldetik.

2.- Nafarroako Gobernua premiatzen da zortzi hilabeteko epean toki entitateekiko lankidetzarako hitzarmen marko bat aurkez diezaion Nafarroako Parlamentuari, udalen liburutegi publikoen mantentze eta kudeaketarako. Hitzarmen horrek arautu egingen ditu komunikazio arloko teknologia berriei buruzko aferak, Udalaren kultur erakundeetan liburutegiak izan beharreko parte-hartzea eta bi instituzioek –Nafarroako Gobernua eta Udala– liburutegiaren kalitatea mantendu eta hobetzeko izan beharreko parte-hartzea. Hitzarmen berri horiek bermatu egin beharko dute liburutegi guztien egonkortasuna".

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2000ko ekainaren 27an eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan

"1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zortzi hilabeteko epean haur-parke publikoak legez arautzeko proiektu bat aurkez dezan. Proiektu horrek haur-parkeen osasungarritasuna, segurtasuna eta egokitasuna bermatuko ditu".

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, oposizio-lehiaketaren bidez betetzekoa

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara-itzultzaile teknikari-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa, Mahaiak 1999ko abenduaren 27an hartutako erabakiaren bitartez deiturikoa (1999ko abenduaren 31ko 33. NPAO eta 2000ko urtarrilaren 17ko 7. NAO), bukatu ondoren, eta epaimahai kalifikatzaileak eginiko izendapen-proposamena (2000ko uztailaren 24ko 60. NPAO) zein interesdunak deialdiko 7.2 oinarrian ezarritakoa betez aurkeztu dituen agiriak ikusita, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionario –teknikarien kidegoko euskara itzultzaile– izendatzea ondoko izangaia. Izen-abizenak:

AGIRRE SARASOLA, Pello

2. Interesdunak hilabeteko epea izanen du, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, lanpostuaren jabetza hartzeko.

3. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA</p>
---	---